

# 2019

**LEIOAKO  
AGINTE  
PLANA**



# 2023

# LEIOAKO AGINTE PLANA

Dokumentu honetan **legealdi honetarako Aginte Plana** laburbiltzen da, zer ekintza gauzatuko diren eta zein Ardatzi erantzuten dioten. Dokumentu honen xedea da helburuak lortzearen jarraipena erraztea eta udal politikaren komunikazioa erraztea.

**Leioa hiri adimentsuaren eredu baten aldeko apustua egiten ari da, aldatetara egokitzeko ahalmena daukana, lurraldeko talentua eta baliabiadeak aprobetxatuz.** Garapen urbanoaren eredu batez ere kualitatiboa eta iraunkorra izango da, efizientzia handiago batean bermatuz zerbitzu urbanoak teknologia berrien erabileraren bidez.

Hiri-eredu honek gaur egungo ekosistema ekintzailea sustatu, behar du berrikuntzari eta ekintzailetzari irekiagoa den ekoizpen jarduera bat bultzatzeko.

Herritarren ongizateari eusteko, elkartasunaren balioa eta hiriarekiko konpromisoa indartu beharko dira. Belaunaldien artean, kolektiboen artean eta baita auzoen eta espazio sozio-ekonomikoen artean ere.

Azkenik, Udalak gobernu eredu berri bateranzko eta administrazio irekiranzko bidea hartuko du; gardentasunean oinarrituta egongo

*“Erakunde berritzaile batek bere bidaiari ekin dio galdera zintzoak eginez hainbat gairi buruz: zergatik existitzen den, nori zaion baliagarri eta nola jakin arrakasta duen”*

(LIGHT, PAUL C. 1998)


da eta zerbitzuen kalitateari berrikuntzaren, parte-hartzearen eta herritarren arteko lankidetzaren bidez eusteko gai izango da.

Azken batean, **kudeaketa iraunkorraren printzipioan** oinarritzen gara, iraunkortasun hori hainbat ikuspegitatik ulertuta, hau da:

- 1 Iraunkortasun ekonomikoaren printzipioa.
- 2 Ingurumen iraunkortasunaren printzipioa.
- 3 Lurralde iraunkortasunaren printzipioa.
- 4 Iraunkortasun kulturalaren printzipioa.
- 5 Iraunkortasun instituzionalaren printzipioa.

Helburu horiek guztiak lortzeko, **28 proiektu traktoreren** eta **109 ekintzaren** bidez garatuko diren Plan honen **5 ardatzak** bultzatu beharko dira; ondoren, xehetasunez aurkeztuko dira.

Irekitasun, gardentasun eta ardura printzipioei jarraituz, Aginte Plana ezin da helburuen eta ekintzen formulazio hutsean geratu, eta kontu-emate estrategia bat ezartzen du, haren emaitzetarako eta aurrerapenerako sarbidea ematen duten tresnen bidez, interes-talde guztien aldetik eta haietako bakoitzari dagokion esparruan..





# 1. ARDATZA HAZKUNDE ADIMENTSUA, GARAPEN ARDURATSUA

## 01 GARAPEN URBANO BERRIAK ETA BIDE PUBLIKOAK:

- 1 Hirigunearen berrantolaketa Sakonetako zoruen inguruan.
- 2 Lamiakoko Bulebarra garatu (EARLE).
- 3 Leioa itsasadarrera hurreratu Dartsenaren berreskurapenaren bidez.
- 4 Pinuetaren Errehabilitazio Urbanoko Planari ekin.

## 02 INGURUMENA ETA IRAUNKORTASUN ENERGETIKOA:

- 5 Udal eraikinen eta bide publikoaren doitze planari ekin, horiek espazio efizienteagoak eta iraunkorragoak izan daitezzen.
- 6 Dauden eraikinen errehabilitaziora bideratutako laguntza plan bat sortu haien kualifikazio energetikoak hobetzeko.
- 7 Udalerriko 900.000 m<sup>2</sup> parke eta guner berde mantendu eta kontserbatu.
- 8 1.000 arbola berriren landaketa sustatu.
- 9 HSSen bilketa sustatu bilketa selektiboaren hazkundera garrantzi berezia emanaz.

## 03 ETXEBIZITZARAKO SARBIDEA ERRAZTU ETA ALOKAIUKO ERREGIMENEN ETXEBIZITZA SUSTATU:

- 10 Alokairu soziala bultzatu Eusko Jaurlaritzan lehenik dauden programak babestuz (ASAP, Bizigune...).
- 11 Alokairu eskuragarriko plana garatu udalerriko etxebizitza hutsa mobilizatuz.
- 12 Etxebizitza kopuru egokia sortu premia larrienak dituzten pertsonak izan ditzaketen beharretarako.

## 04 MUGIKORTASUN IRAUNKORRA ETA GARRAIOA:

- 13 Gaur egun sarbide ona ez daukaten auzoetarako konexioak hobetu

(igogailuak, oinezkoentzako egokitzeak...).

- 14 Bidegorrien sarea osatu eta, garraio alternatibo moduan, bizikleten mailegu sistema baten aldeko apustua egin.
- 15 Lejoan Busaren sarea hobetu herritar gehiagori emateko zerbitzua.
- 16 Udalerriko parkeak eta guner berdeak lotuko dituen eraztun berdea sortu.
- 17 Udalerrikoak ez diren ibilgailuen udalerriko iragatea murriztu, gaur egungo bideen trafikoa berrantolatuz.

## 05 HERRITARREN SEGURTASUNA:

- 18 Udalerriko puntu beltzak eliminatu.
- 19 Udaltzaingoaren irisgarritasuna hobetu.
- 20 Hobekuntza bitarteko materialetan.
- 21 Erakundeen arteko lankidetzaren segurtasunaren esparruan.





## 2. ARDATZA SUSTAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUAREN SORRERA

### 06 ENPRESA ETA INDUSTRIA EHUNAREN LEHIAKORTASUNAREN HOBEKUNTZA:

- 22 Ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak, enpresa parkeetan enpresa-jarduera indartzeko.
- 23 Enpresei eta saltokiei zuzendutako tratatze-programak, arreta emanez teknologia berriei eta merkatu ekonomia berriei.
- 24 Tokiko garapenerako eredu arrakastatsuen trukea ahalbidetuko duten lankidetzak ekintzak ugaritu.

### 07 MERKATARITZAREN SUSTAPENA ETA DINAMIZAZIOA:

- 25 Programa espezifikoak artikulatu Merkatarien Elkartearekin, eta aurrekontuen aldetik babesa eman hiri bizi baten aldeko haren ekimenei.
- 26 Merkataritza berrindartzea; MIPBtik eratorritako estrategiak egikaritu.

### 08 KOORDINAZIOA ETA HOBEKUNTZA PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU POLITIKETAN:

- 27 Programa espezifikoak artikulatu pertsona langabetuen eta lanbideratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboen lan okupaziorako.
- 28 Enplegu hobi berrietan, langabetuentzako prestakuntza ekintzak eta lan mundurako sarbidea bultzatuko duten ekintzen eskaintza.
- 29 Prestakuntza praktikoko programak, lan merkatuarentzako sarbidea erraztuko duten lanpostuetan.
- 30 Lan orientabideko zerbitzuko arreta hobetzen laguntzeko tresnak garatu.
- 31 Enpresa prospekzioko esku-hartzeak garatu, kontratazio beharrak atzemateko.
- 32 Enplegu bila dabiltzan pertsonen bitartekaritza prozesuetarako sarbidea erraztu.

### 09 ENPRESEN SORRERA ETA KULTURA EKINTZAILEA SUSTATU:

- 33 Prestakuntza eragileekiko koordinazioa. Sentsibilizazio,

prestakuntza eta aholkularitza jarduerak ekintzaitzen. Enpresen Udal Haztegia indartu, enpresa proiektu berrien ekintza sustatzeko.

### 10 JARDUERA EKONOMIKO BERRITZAILIEN EZARPENARI BABESA:

- 34 Inguruko enpresen lankidetzak sareak sustatu, proiektu berriak garatzeko.

### 11 ENPRESA SENDOTZEAREN SUSTAPENA:

- 35 Enpresa sortu berriei babesa eman, funtzionamenduari lehen etapetan laguntza tekniko eman.

### 12 LEIOARAKO ESTRATEGIA TURISTIKO BATEN DISEINUA ETA EGIKARITZEA:

- 36 Leioaren plan turistikoa bat bultzatu, udalerriko ondare askotarikoa balioetsiz, hala herritarrentzat nola kanporantzko proiektuak ekintzetarako.





### 3. ARDATZA

## ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK, KIROLA, KULTURA, EUSKARA, OSASUNA, HEZKUNTZA ETA AISIALDIA

#### 13 GERTUTASUNEN KULTURA:

- 37 Kulturgune berria Lamiako, Txopoeta Pinueta eta Ibaiondorako.
- 38 Entsegu areto berriak tokiko taldeentzat.
- 39 Kaleak eta plazak espazio kultural moduan.
- 40 Elkarteen Etxea Mendibile Ikastetxean.
- 41 Artaza Parkea eta haren Jauregia zentro sozial eta kultural berri moduan.
- 42 Tokiko artisten ikusgarritasuna sustatu.
- 43 Tokiko talentuari bultzada Unibertsitatearekiko aliantzak baliatuz, besteak beste.
- 44 Kolektibo eta adin guztietara egokitutako programazio kulturala.
- 45 Lurralde oreka: jarduerak bultzatu Auzoetan.
- 46 Lekuen eta programazio kulturalaren mapa.
- 47 Europako dirulaguntzetarako sarbidea proiektu kulturalen esparruan. Europa Sortzailea.
- 48 Kultura arloko lana egiteko zirkuituak eta sareak ahalbidetu arte eszeniko eta musikalen, ikusizko arteen eta ondarearekin lotutako arteen esparruetan.
- 49 Berrikuntza, prestakuntza eta zabalkunde kulturalako ekimenei babes eta bultzada Leioan dagoeneko sendotuta dauden eta oihartzun soziala duten jardueren, zeinak hiriaren benetako marka erreferentzial moduan geratzen ari diren.

#### 14 SUSTRAITZEA ETA IDENTITATEA:

- 50 Euskara ikasteko laguntzak malgutu.
- 51 Euskararen erabilera indartu esparru sozialetan euskarazko ekitaldien kopurua handituz.
- 52 Ehun asoziatibo euskararen erabileraren normalizazioan txertatu.
- 53 Parte-hartzea euskararen aldeko ekitaldi sozialetan.

- 54 Euskararen Plan berri bat onartu eta garatu.
- 55 Udalerriko seinaleetika berrikusi eta eguneratu.
- 56 Kirol tradizionalari eta euskal kulturari babesa eman.
- 57 Gidak eta argitalpen txikiak Leioako kultura, kondairak eta eraikinak ezagutzera emateko.

#### 15 LEIOA: HEZKUNTZA ETA HEZIKETA HIRIA:

- 58 Umeen kontseiluarekin jarraitu.
- 59 Unibertsitate egoitza.
- 60 Ideia-lehiaketa, gazteek jarduerak kulturean duten parte hartzea sustatzeko.
- 61 Gaztelonjak Programa.

#### 16 KIROL INSTALAZIOAK:

- 62 Torresoloko Kiroldegi berriaren obra lizitatu.
- 63 Kirol erabilerarako gune berriak; kirola auzo guztietan (Lamiako itsasadarren ondoan, Leiuñti Leioan...).
- 64 San Bartolomeko pilotaleku berria.
- 65 Ikastetxeetako aire zabaleko instalazioen hobekuntza.
- 66 Leioako kirol eskaintza mantendu eta, egokitzen bada, hobetu.
- 67 Bateragarritasunari babes kolonia kirol-dibertigarrien bidez (UDA, UDA-TXIKI).
- 68 Kirol inklusibo eta egokituak sustatu.
- 69 Kirolerako eta/edo jolaserako ekipamenduen eta zerbitzuen kudeaketaren etengabeko berrikuntza eta hobekuntza.

#### 17 KIROL KUDEAKETA INTEGRATZAILEA:

- 70 Kluben eta elkarten arteko elkarrekintzarako plataformak eta tresnak sustatu.
- 71 Babes eta laguntza ekonomikoa eman gure kirolariei.
- 72 Leioagoitia baserria egokitu, kirol klub eta elkarten egoitza moduan.

#### 18 LEIOA OSASUNGARRIA:

- 73 Kirolaren eta Osasunaren Parkea Leioan.
- 74 Osasunaren eta ohitura osasungarrien sustapena aniztasunari arreta emanez.





## 4. ARDATZA BERDINTASUNA, ELKARTASUNA ETA GIZARTE ARRETA

### 19 ARRETA KOMUNITARIOKO EREDU BERRIA: ARRETAREN KALITATEA GIZARTE ZERBITZUETAN:

- 75 Adineko pertsonentzako udal ostatatze zerbitzua abian jarri.
- 76 Bazterketa egoera dauden pertsonentzako eguneko arreta eta gaueko harrera zerbitzua abian jarri.
- 77 Oinarrizko premiak asetzea bermatu bazterketaren esparruan.

### 20 BERDINTASUNA:

- 78 Sentsibilizazio programak. Ahalduz Eskola.
- 79 Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei harrera egin eta artatzeko programa.

### 21 GIZARTE INTEGRAZIOA:

- 80 Bakardadea atzemateko programa zabaldu.
- 81 Etxeko laguntza zerbitzua sendotu.
- 82 Pertsona zaintzaileen atsedeen zerbitzua sendotu.
- 83 Gaur egungo Adinekoen Etxeen jarduera programak indartu.
- 84 Immigrazioaren eta Bizikidetzaren II. Plana onetsi eta garatu.
- 85 Adikzioen Prebentziorako Leioako Udalaren I. Planaren onetsi eta garatu.
- 86 Txirotasun energetikoaren aurkako Borroka Plan baten onetsi eta garatu.

### 22 ELKARTASUN EKIMENAK, BOLUNTARIOTZA ETA LANKIDETZA:

- 87 Parte-hartze soziala garatzeko ekintzak hainbat esparrutan (kultura, osasuna, hezkuntza, adinduak...).
- 88 Udal aurrekontuaren % 0,07 bermatu garapenerako lankidetzaren programen finantzaziorako.

### 23 GIZARTE LAGUNTZEN KUDEAKETAREN KONTROLA:

- 89 Kontrol eta ikuskaritza soziala.
- 90 Gizarte Zerbitzuen Gida bat egin emandako zerbitzuen zabalkundea hobetzeko.

- 91 Dirulaguntzen zereginaren berrikuspina eta hobekuntza gizarte zerbitzuen udal sisteman.

### 24 OSASUN PUBLIKOA:

- 92 Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritu gaur egungo Osasun Zentroaren egokitzapenean.
- 93 Osasunaren eta ohitura osasungarrien sustapena.
- 94 Animalia galdu eta abandonatuaren udal zerbitzua mantendu.
- 95 A.A.A. Atzeman Antzutu Askatu Planaren onarpena eta garapena estaldura zabalduz.



## 5. ADATZA KUDEAKETA AURRERATUA, GOBERNU IREKIA

### 25 GOBERNU IREKIA:

- 96 Aurrekontu Parte-hartzaileak, prozesu nuklear eta denboran egonkor moduan.
- 97 Leioa Data bultzatu (Datu irekien katalogoa).
- 98 Herrigune, parte-hartze leiozarraren filosofia moduan.
- 99 Udal zerbitzuen ekintzen ikusgarritasuna indartu: Gardentasuna eta Kontu-ematea.

### 26 BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA:

- 100 Udal kudeaketarako azpiegituren eta tresneria teknologikoak hobetu.
- 101 Balioa lortzeko lagungarri diren azpiegitura teknologikoen garapenerako eta/edo berrikuntzako foroetan eta proiektuetan parte hartu.
- 102 Mugikortasun zerbitzuak garatu.

### 27 HERRITARRENTZAKO ARRETA INTEGRALA:

- 103 Udal Zerbitzuen eboluzioa eta hobekuntza: Transbertsalitatea eta Balio-aniztasuna.
- 104 e-Administrazioaren aldeko apustu irmoa.
- 105 Leioarentzako interoperatibitate eredu definitu.

### 28 KUDEAKETA PUBLIKO ARDURATSUA:

- 106 Kudeaketa Publiko Arduratsuaren definizioa eta Kudeaketa Aurreratuko eredu hartu.
- 107 Udal Kode Etikoa/Etikoak onetsi.
- 108 Zerbitzu Kartak egin.
- 109 Gastu publikoaren kontrola. Aurrezpen Programak.





# GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK ETA LEIOAKO 2019-2023 AGINTE PLANA

Bere kudeaketan Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) txertatzea onetsi du Leioak. Hala, 2019-2023 Aginte Plan honek dirauen bitartean egin beharreko 109 ekintzen bidez, **NBEk 2030 Agendan formulatutako** Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuekin bat egiten dugu Leioatik.

2015ko irailaren 25ean Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aho batez onetsi zuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda. Ekintza plan unibertsal, integral eta eraldatzailea da, giza garapena sustatzera bideratua modu iraunkorrean gizartearen, ekonomiaren zein ingurumenaren esparruan.

2030 Agendak agertoki globala planteatzen du eta Nazio Batuek ezartzen dute lurralde bakoitzak bere berezko gorabeherak aintzat hartuta ibili behar duela bide hau. Garapen Iraunkorrerako Helburuek ez digute esaten zer egin behar dugun; **gure politika publikoak hobetzen eta leentasunak finkatzen laguntzen duen testuinguru bat definitzen dute, lurraldearen berezko errealitatea aintzat hartuta.**



## GARAPEN IRAUNKORRERAKO 17 HELBURURI BURUZ ARI GARA, 169 XEDERI eta 232 ADIERAZLERI BURUZ.



**1** POBREZIA  
AMAITzea



**2** GOSERIK  
EZ



**3** OSASUNA  
ETA ONGIZATEA



**4** KALITATE ONEKO  
HEZKUNTZA



**5** GENERO-  
BERDINTASUNA



**6** UR GARBIA  
ETA SANEAMENDUA



**7** KUTSATZEN EZ  
DUEN ENERGIA  
ESKURAGARRIA



**8** LAN DUINA  
ETA HAZKUNDE  
EKONOMIKOA



**9** INDUSTRIA,  
BERRIKUNTZA  
ETA AZPIGIGITURA



**10** BERDINTASUN EZA  
MURRITzea



**11** HIRI ETA  
ERKIDEGO  
JASANGARRIAK



**12** EKOIZPEN  
ETA KONTSUMO  
ARDURATSUAK



**13** KLIMAREN  
ALDEKO EKINTZA



**14** ITSASPEKO  
BIZITZA



**15** LURREKO  
EKOSISTEMEN  
BIZITZA



**16** BAKEA, JUSTIZIA  
ETA ERAKUNDE  
SENDOAK



**17** HELBURUAK  
LORTZEKO  
ITUNAK

